




Basque Writing 21

PENkideak

eta

Pandemia



Munduarekiko ikuskera eta norberaren al-dartea astez aste aldatuz doazen garai honetan, zaila da ezer esatea denboran irauteko bokazioaz.

Basque Writing honetan jaso ditugun testuen bokazioa ez da irautea, unea islatzea baizik. Burutazioak baino, bihozkadak dira, garaiok sorrarazten dituzten hausnarketak. Hausnarketak ala ardurak. Nola bereiztu batzuk besteengandik!

Pandemia hau ez da gizateriak bizi izan duen lehena, aurreko mendeetan ere pandemia ugariak eta hilgarriak izan direlako. Baina lehena da hainbat arlotan. Batetik, sinkronikoa izan da planeta osoan epe laburrean, bizpahiru hilabetean mundu osora hedatu baita. Bestetik, informazioa hedatzeko inoiz ez bezalako baliabideak daude eta, egia bada ere lurraldearen arabera euskarri teknologikoak desigoalak direla,

munduan ia-ia ez dago lekurik non norbanako batek ezinezkoa duen sarera konektatzea.

Hedapenak egiten du berezi pandemia hau: lurraldeari begirako hedapenak eta informazioa gizabanako bakoitzarengana helarazteko ahalmenak.

Noizbait sentitu izan badugu Marshall McLuhan soziologoak Günter Galaxian azaldu zuen "herrixka globalaren" kontzeptua, martxotik honako hilabeteetan izan da. Ez dezagun ahaztu *Galaxia* 1962an argitaratu zela, eta interneteko lehenengo zerbitzaria ez zela sortu 1983ra arte.

Aldizkari honetan jaso ditugun testu guztiak 2020ko martxoan eta apirilean idatzita daude eta aurretik **BERRIA** egunkarian argitaratu dira. PENeko kideak edo hurbilekoak diren idazleen eskutik ekarri ditugu hasierako hilabeteetako ezinegona eta ziurgabetasuna. Eider Rodriguezek fin islatzen ditu zailantza eta dudak semearen galderaren bidez: *"Etorkizuna iristean bizirik egongo al naiz? Eta etorkizuna hemen dagoenean, gaztea izango al naiz?"*.

Lutxo Egiak, birusak jota, ia hilabetea eman zuen bere gelan itxita, atearen bestaldean zeuden etxe-koekin telefonoz mintzo.

Itxaro Bordak fragmentoak aletu ditu bere testuan, Urakanaren egutegian printza solteak eskegita. Karlos Linazasorok, azkenik, denboraren joan-etorrian pausatu du begirada, eta unea eta infinitua kontrajarri ditu testuan.



Laura Mintegi
Euskal PEN



Salto!

Eider Rodriguez

Begiratu leihotik: orain arte gerturatzen ez ziren txoriak etortzen hasiak dira egunotan etxe ingurura, untxiak agertu dira errotondetan, izurdeak portuetan, eta «bide ertzeko seinaleetan bizi ziren»¹ oreinek muturra sartu dute parkeetan. Izan gaitezen animalia instante batez: senti dezagun ematen dugun beldurra, sortu dugun mundua. Begiratu orain leihotik barrura: zer gara, zer bilakatu gara, zer izan nahi dugu, zer emateko prest gaude, zenbateraino utzi nahi ditugu estatuen eta borradunen esku geure bizitzak.

«Etorkizuna iristean bizirik egongo al naiz?», galdetu izan dit semeak beldurra eta liluraren artean *Black Mirror*, *The 100*, *Terminator*, *Walking Dead*, *Mad Max*, *Matrix*, *Children of men*, *Blade Runner*, *Contagion*... fikzio distopikoak ikusi eta gero. Nik baietz eta «etorkizuna hemen dagoenean gaztea izango al naiz?» jarraitu berak, eta orduan ez, orain arte ez dut jakin izan zer erantzun. Orain badakit: distopia hemen dago, bizirik gaude eta oraindik «gazte» hura usteko.

Hezi ginen Eduardo Gleanoren hitzok soinean generamatza: «Utopia ortzemugan dago. Bi pauso ibiltzen ditut, bi pauso urrutiratzen da bera eta zeruertzak hamar pauso aldentzen. Zertarako balio du, bada, utopiak? Horrexetarako, ibiltzeko balio du». Sinestuta geunden, eta berdin zitzaigun, utopia ameskeria erromantikoaren sinonimo zela, eskuratu ezina, nahiz eta gure txikian ekintza txiki ederrak egiteko baliagarria, beldurra eta lilura pizteko gai hau ere. Gleanoren hitzoi begiratu bat eman eta senti dezaket dagoeneko ez dutela taupa egiten gazteagotan egiten zidaten odol berdinarekin, areago, zimeldu egin dira, erlikia bilakatzeraino. Orain ikusentzunezko plataformek lehen mundua aldatu



nahi zuten argitaletxe eta zinemagileek ematen ziguten edukia ekoizten dute, kapitalismoa hori bezain eskuzabala baita.

Lehen, esnatu eta herrian eta munduan gertatu zena jakiteko premiari kafearekin laguntzen genion egunkaria aldean; egun, norberari ezer, edozer, gertatu izanaren premiaz sartzen gara gure e-postan eta sare sozialetan, teak lagunduta, mundua geroratuta. Behinola eztarria urratu beharrean abestu genituen kantuak, iparrorratz genituen poema eta liburuak modaz pasa dira galtza akanpanatuak eta flekillo zurrinak nola, ez bakarrik estetikoki, baizik eta baita edukiz ere, eta nostalgia erasoaldietan baino ez ditugu erreskatatzen, ardoa eta gertuko lagunak konplize. Ametsak lotsagarri bilakatu zaizkigu eta, postapokalipsi paralizantea, cooltasunaren goia.

Etorkizuna hemen dago eta agian zaharkituta utzi ditu Gleanoren hitzak ere, eta utopia, distopia bezala, uste baino eskurago dugu. Baina ez dezagun ahantz: distopiak iraultzaileak izan daitezke eta utopiak alienatzaileak. Bakoitzarekin zer egiten eta elikatzen dugun da axola duen bakarra: beldurra edo grina, totalitarismoa edo antolakuntza, autosalbazioa edo zaintza, nartzismoa edo niarentzako tokia uzten duen komunitatea, distantzia edo gorputza, bakartasuna edo elkartasuna, birtualtasuna edo lurra, errealitatea edo irudimena, heriotza edo bizitza finean.



Fikzioen ideologiaz eta honen ondorioez hainbeste idatzi duen Fredric Jamesonek dio benetako distopia sistema kapitalista dela, eta makina gas erdira dagoen honetan, aukera dugu hori hala den edo ez sentitzeko (hau idazten du-dan bitartean, hildakoen zifrak eta kutsatutako herrialde kopurua gorantz doazela irakurtzen dut free shipping-a duten X etxeko oinetako kolekzio berriaren iragarki-oztopokoekin estropezuka).

Geure bizitzan lehenengo aldiz denoi batera gertatu zaigu zerbait, ez emakumezkoiei, ez pobreei, ez beltzei, ez homosexualei bakarrik, baizik eta denoi. Begiratu leihotik barrura: biharik ez balego bezala jardutera ohitu gara, epe motz eta indibidualista batean, antolakuntzari alferrikako iritzita. Baina orain, bakardade geometriko hauetan, gelditasunaren magiari esker, akordatu gara besteaz. Akordatu gara haurrez, nerabeez, zaharrez, eta adin horien erdian gauden supergizon-emakumez, baserritarrez, abeltzainez, grebalariez, Joaquin eta Albertoren senideez, hiperaktiboez, psikotikoez, neurotikoez, emakume eta haur abusatuez, alkoholikoez, artistez, supermerkatuko langileez, osasungintzakoek, zaintzaileez, presoez, autobus gidariez, kanean bizi direnez, migrantez, errefuxiatuez, ludopatez, tailerretako langileez, telelangileez, kazetariez, ERTEan daudenez, langabetuez, ordenagailurik ez daukatenez eta baita hildakoez ere. Bagenekiena sinesten hasi gara: zaurgarriak gara eta bakartuta gaudenean galduta gaude.

Hau amaitzen denean gure mundua eta askatasuna prekarioagoak izango dira, baina berehala ahaztuko zaigu, batez ere soldatari eusteko zortea izango dugunoi. Gutako asko lanera itzuliko gara, eta txoriak, oreinak, izurdeak eta untziak klandestinitatera itzuliko. Batzuk opor txiki edo handi batzuk ordaintzeko lain izango dugu; beste batzuk galdutakoa berreskuratzen jarriko dute indarra. Bien bitartean, balkoietara ateratzeko beharra sentitu dugu, omentzera, oihu edo zaunka egitera, kantatzera, bizilagunekin bingoa jolastera, harantzago begiratzera. Ez dezagun ahantz, baina, geranioz apainduta egonagatik balkoiak ere hesiak direla.

Etorkizuna hemen dago eta zaurgarri bezain bizirik gaude. Badakigu kapitalismoa matrioxka handiena dela eta hura zartatu aurretik txikiagoak diren matrioxka mordoxka bat dekapitatu beharko ditugula. Aukeratzeko aukera dugun artean izan gaitezen txori, untxi edo orein, eta hau dena bukatutakoan, ausartu gaitezen behin-goz nahi dugun bizitzara salto egitera. Lehenago bagenituen motiboak eta aurrerantzean soberan izango ditugu.

BIO-BIBLIO

(Erretereria-Gipuzkoa, 1977). Saiakera bi ditu argitaratuak: *Itsasoa da bide bakarra* (Utriusque Vasconiae, 2014) eta *Idazleen gorputzak* (Susa, 2019)—, ipuingintzan nabarmenduda. *Eta handik gutxira gaur* (Susa, 2004) izan zuen lehen narrazio liburua, eta, haren ondotik, *Haragia* (Susa, 2007), *Katu jendea* (Elkar, 2010) —lgartza sariaren irabazlea— eta *Bihotz handiegia* (Susa, 2017) plazaratu zituen.



Argazkia: Lander Garro



Banpiroak eta Palindromoak

Lutxo Egia

Martxoaren bukaeran David Fernandezi (*Argia*-ko artikuluan) eta Philippe Lançoniri irakurri zenien aipua: «Gela batean lasai jesartzeko eta bakarrik egoteko gauza ez garelako sortzen dira gizon-emakumeon zorigaitz guztiak». Pascal filosofoarena da gogoeta. Eta gela, beraz, XVII. mendekoa, wifi gabekoa. Lançonek *Le Lambeau* liburu zirraragarrian jasotzen du, *Gelako geometria* atalean. Jakina denez, Kalashnikov-357 Magnum bateko tiro bik desitxuratu zuten kazetariaren matrailezurra *Charlie Hebdo* aldizkari satirikoaren kontrako atentatuan. Lançonek ezin eramanezko bederatzi hila bete eman zituen Salpetriere eta Invalides ospitaleetako hainbat gelatan.

Gelak. Barne-diseinatzailea da Harkaitz Cano, areago zure sukar-ametsetan. *Fakirraren ahotsa*-ko (Susa) Arakisen hilketaren pasarteko egitura berdintsua du zure logelak. Ohearen albo banatan mesanotxe bat duzu. Gau-mahai berdinak dira, eta bakoitzean lanpara txiki bat, erretratu bat eta liburu bat dago. Aurrean, ezker-eskuin ere zabaltzen den orri biko ate zuri egurrezkoa dago, ospitaletako korridoreetako bezalakoa. Orain arte ez diozu simetria miresgarri horri erreparatu. Eta ez ohartze horrek urduritu egiten zaitu. Simetriek, funtsean, demokrazia estetiko izaten dute asmo eta helburu. *Sapiens*-en historia luze-laburrean beti ezarri dizkizute simetria asimetrikoak, batez ere inork gobernariak asmatu zituenetik. Zure gelako simetria ez da (Canorena ere ez) palindromo batena bezain hertsatzailea, baina artegagarria da.

Eta horregatik, beharbada, gela ez da hain zurea. Orain arte ez baduzu estetikaren lege pisuzko hori konprenitu, beharbada ez da hain



zurea. Edozein delarik ere, ziega, jokaleku, agora eta mapa bihurtu zaizu ohartu orduko. Hiru aste igaro dituzu irten gabe. Ustez COVID 19ak estu berrakatu zaitu. Ustez, baina «ehuneko laurogeita bederatzian ustez» soilik, adierazi dizute. Egun, seguruago mugitzen zara ziurgabetasunean, errealtate zabukarietan. Lehen astea latza izan zen. Heldu aurretik sinetsita zeunden eldarnioak eta lokamutsak Elhuyar Hiztegiko asmazio hutsak zirela, baina gauzez zure gogora eta biharamunean zure ezpaintedara abaildu ziren ezustean. Paparreko domina distiratsuak nola, zeuk ere badauzkazu eldarnioak eta lokamutsak. Gauero hiru bagoitako tren bat etorri zaizu bila, Hildakoen Trena.

Trena zure gelan lehendabizikoz. Ez da zaila azaltzen. 1908an Bilbotik kanpo ere hasi zitzaizkien joandakoei lur ematen. *Si tibi terra levis*. Hirian 1870ean hasi baitzen dena aldatzen eta 1910ean amaitu dena. Bizilagun kopurua laukoiztu egin zen. Bai eta hildakoena ere. Orduan, Deriora eramaten hasi ziren. Mariano del Corral ingeniariak Hildakoen Trena sortu zuen. Hiru bagoi zituen. Lehen bagoiak luxu guztiak zituen, egur landuak eta kristal esmerlatuak. Hil-kutxa bakarra garraiatzen zuen eta egongela elegante bat ere bazeukan senideentzat; bigarrenak hil-kutxa bi eraman zitzakeen eta senideentzako departamentu txiki bana ere bazuen; hirugarrenak hamar hil-kutxarako tokia zuen, baina ez zeukan eserlekurik senideentzat.



Gerra Zibila arte Hildakoen Trena zure etxe ondotik abiatu zen, Unamuno plazatik. Aurreko egunetan, aldiz, zure gela simetriko inperfektutik bertatik partitu da, behin eta berriz, behin eta berriz, *overbooking* tamalgarri batean. George Perecek kontatzen du *Espèces d'espaces* bitxi hartako *Logela* atalean, logela, espazio gisa, nahikoa dela hala gogoeta ezdeusenak nola oroitzapen ezinbestekoenak ekartzeko. Eta zuk zeuk eldarnioak eta amesgaiztoak ere gehituko zenituzke. Netflix eta Twitter bazter, logelan pentsalekua eta oroilekua zabaldu dituzu, bai eta tren-geltoki zaharra ere. Atzo arte ez zenekien zenbat gauza sar daitezkeen logela itsu batean. Medikuak berak azaldu zizun izugarri handituko zitzazula. Egia esanda, aitortu zizun Osakidetzak telefono-bidezko arreta bakarrik eskaini ahal zizula eta, ikusita gaixoardiaren araberako Garizuma paganoa antolatu behar zenuela, hobe zela abade batengana jotzea edo Logela Turistiko bat irekitzea. Eta zuk bigarrenaren alde egin zenuen: gelan B&B bat sortu duzu, baina ez *Bed & Breakfast*, baizik eta Bakartua & Bazkatua, eta ohartu baino lehen Hamsterraren sindromepe bizi zara. Ohitu ez ezik, zaletu ere egin zara logelako simetria kezkarria: bost urrats aurrera, bost atzera eremuan barrenako promenadetan; balkoietakorrotzak etxeago eta etxeokak arrotzago; goizez A. B-ren identitatea lapurtu eta B. A.-rena gauzez (amets siamdararak)... Eta ez dakizun arren, *vending*-banpiro bilakatu zara, 24 ordu zabalik ingurukoei odola xurgatzen, bereziki gau parteko esna-aldi amaigabeetan. Eta horren zaude eroso...

Eroso zeure irla pribatuan. Auzoa ere bihurtu dute zure gelara, nahiz eta tentuz ibiltzeko gomendatu dizuten, tentuz ibiltzeko gelauzo berrietan. Diotenez, lehenago mutatuko dute auzokide batzuek birusak berak baino. Eta zuk Gael Fayeren *Ene herri txikia* (Igela) nobela ederrera jo duzu honako pasarte hau berreskuratuzko: «Ez naiz gogoratzen noiz erabaki genuen ez gnuela aski gurea zen pixka hura banatzea, eta noiz utzi genion besteez fidatzeari, noiz hasi ginen besteak arriskutat hartzen, kanpoko munduarekin muga ikusezin hura sortzen, noiz hasi ote ginen auzoa gotorleku eta kalezuloa giltzape bihurtzen». Eta ez bazeneki hark hutuen eta tutsien arteko liskarrak zituela buruan, sinatuko zenuke egin dizuten ohar-tarazpenaz ari zela. Auzo bat non lausoa ikusgarri egin den, non ezkutukoa ageriko. Batek daki. Hala izango da. Hala ere, zuk zeuk inoiz baino auzoago

ikusten duzu auzoa (Zazpi Kaleak) zure gelatik: Internet bidezko telebista jarri dute martxan, elkartasun-sare zabala aktibatu, komertzio txikien geroarekin arduratu... Gelaren auzotzea.

Orain, ustezko zomorroiari bizkar ematen ari zatzaizkion honetan, auzoaren gelatzea darabilzu gogoan. Eta horretan ezinbesteko bidelagun duzu Pascal. Lantzean behin bizitza pentsatu ere egin behar baita. Tonika bat zabaldu duzu kininaren ilusioa aintzat hartuta. Moke-ta urdina da. Esango zenuke lehen gorria zela. Berdin da. Pascalek aholkatu dizu bakartzearen luzatze bat eskatzeko eta etxea zeharo banpirizatzeke. Pascal. Pentsatzea. Pirritx, Porrotx eta Marimototsen harekin gelditzen zara.

BIO-BIBLIO

(Santander-Espainia, 1968). Poesia, *Kalezuloko animalien itzalak* (Pamiela, 1999), eleberriak *Paperezko hegazkinak* (Susa, 2002), *Ezker hanka falta zuen* (Susa, 2005), *Zubigilea* (Susa, 2007) eta narrazioak, *Txakur ingelesak* (Susa, 2011) argitaratu ditu. 2015ean, *Bi-lingual: Transitoak* performancea gauzatu zuen eta 2017an, *Haren da nire* performancea egin zuen.



Argazkia: Marisol Ramirez



Urakanaren egutegia - fragmentuak

Itxaro Borda

Pertsonalki ezagutzen dudan lehen kutsatua-
ren bila etorri dira. Hala uste dut bederen. Lanean
gurutzatzen nuen adineko bat, gizonezkoa, matoa
eskuan eta konkorr, ahoa bete erasiaz hurbiltzen
zitzaidana. Laidoak mereziko nituzkeela nioen
nirekiko, gure karrikan anbulantziaren argi urdinak
eta kosmonauten antzera jantzi erizainak ikustean.
Orduan, Covid-19 birusaren hurbiltasun izugarriaz
jabetu nintzen. Saguzarretik sugerako bidea agudo
egin zuen koronabirusak, gizakiaren biriketan habia
abegikorra aurkitzeko. Ilundura batek inarrosi nau.

Oroitzen nintzen, Eguberriz, familia-bazkarian
eta beranduago Urtatsez, nola burlari urtzen ginen,
gaztaren eta xanpainaren artean. Txina garai hartan
urrun zitzaigun. Jarraiko informazio kateetako «orolo-
go» eta «editokrata» ospetsuak beldurra zabaltzeaz
akusatzen genituen, loriatzen zirela hipotesirik
latzenak harilkatzen. Erretreten erreformaren kontra
genbiltzan karriketan eta Macronen gobernuari
birusaren aitzakian, parlamentuko eztabaidak
mozteko Konstituzioko 49-3 alinea aplikatzea lepo-
ratzen genion. Aurreneko eriak eta zenduak zenbatu
zirenean, otsaila erditsuan, osasun ministroa bezain
sinetsgaitz genbiltzan. Egoera larriagoa zen Italia ipar-
aldean, Alemanian, Espainian handik gutxira.
Madrileko kazetariak zero pazientea lokalizatu zuten:
Sevillakoa zen, enpresaria, Malagan egona eta 62 urte
zituen. Berazten nintzen kutsaturen bati izena eta
aurpegia jartzen ziotenean.

Ez dugu nehoiz horrelakorik bizi izan. Biga-
rren Mundu Gerratik gaur arteko gure bizitzak aski
lasaiak suertatu dira, amodiozko pena, dolu samin eta
arazo literario zenbait gora behera. Arintasunez hartu
genituen, demagun, hegaztien gripearen eta H5N1-
aren epidemiak. Botere zentralak papertxoak igorri



zizkigun txertoak urririk egiteko, baina muzin egin
genien. Gobernuari manipulazioa zeriola iruditzen
zitzaigun. Zientzia fikzioko nobela sobera leitzen
genuen. Baina, antza, Covid-19 honekin, ezberdina
da: jende sail osoak defentsarik gabe daude, bereziki
adinekoak, maskararik ez da, eskuak garbitzeko likido
alkoholikorik ere ez, dirua falta herritarrak masiboki
testatzeko.

Martxo hasieran, Bilbotik Bruselara, Parisetik
Baionara gero, harritzen nintzen zelako leizea zegoen
pantailetan pizten zen alarmismoaren eta hirietako
ibiltarien axola gabeziaren artean. Aireportuetan,
bakarrek maskarak zeramatzaten, asiarrak gehienak,
bulego batzuetan ahurrak desinfektatzeko urak
baziren, baina gainerakook bost, eskua luzatzen,
musuak banatzen eta elkar gozoki tinkatzen segitzen
genuen. Louvre itxia egon zen, baina ireki zuten on-
doko bi egunetan, halaber Beaubourg, Pierre
Soulages handiaren beltzaz haragoko pintura distira-
tsuak erakusteko. Hala ere, trenetan eta metroetan,
ahots anonimoek segurtasun aholkuak bihikatzen
zituzten: eskuak garbi, urtzain eta eztul egin beson-
doan, paperezko mokanesak erabil, kidearekiko dis-
tantiak mantendu. Hor ere galdera bat, Louise
Michelen potretaren maldan, Quincampoix kalean:
epidemia hain larria baldin bazen, nola egingo genion
aurre hain baliabide gutxirekin?



Urakana iragartzen dute medikuek. Italiakoaren parekoa. Espainiako ez dute aipatzen. Macron mintzatu da telebistan, hitzak txistukatuz, adinekoak geriza eta elkar lagun gaitezen. Arazoak agertzen direnean, hiritar guztien esku-ukaldia eskatzen dute neoliberalek. Beste orduz, estatua suntsitzea baizik ez dute helburu. Enpresentzat, noski, ospitale publikoarentzat baino sos gehiago iragarria da. Pornografia hutsa. Jende arruntak balio ekonomikorik ez duela argi dago. Dena gertatzen da, eman dezagun, istripu nuklear baten karietara, energia enpresa diruztatzen balitz bezala, herritarrek artatzeko medioak indartzeko partez.

Euskal Herri hegoaldean eskolak zerratu dira duela hiru egun. Museoak. Ostatuak. Hamabost egunerako. Eginkizunak, banan bana, bertan behera uzten ari dira, kulturen, politikan eta kirola mailan. Iparraldeak norabide berdina hartuko duke. Akitania Berrian kutsatu anitzik ez da. Baina egun batetik bestera, kopuruak biderkatzen ahal direla frogatu digute Txinan, Italian, Espainian, hemen bertan. Ez gara prest. Harri-garriki, beldurra da menpera dezakegun sentimendu bakarra. Ikusi da frantses osasun ministro berria marra gorriak eta beltzak paperrean etzanez, esplikatzeko nola saiaturiko diren erien uhinak kontrolatzen, trantze larrian dabilen ospitalea gainditua ez izateko. Diskurtso magikoak. Irrazionalak. Egunotan, Margueritte Durasen *Un barrage contre le Pacifique* nobela daukat buruan: ama hura borrokan, itsasoak bere lurra ito ez zezan, debaldetan. Rithy Panhen filmean ama hari, Isabelle Huppertek ematen zion gorputz.

Italiatik berri ankerrak datoz. Venezia, Firenze eta Erroma hiri kuttunak huts- hutsak ikusten dira. Dantaren marmolezko estatua geldo dago Santa Croce eliz atarian eta ez da aro Donatelloren obren atzetik ibiltzeko. Legoatan dago *dolce Vita* gozo hura. Sare sozialetan, Lombardiako erizain baten argazkia, unatua, lotan, begitartea teklatu batean aurtikia. Tristurak bete nau, mediku bat entzun dudalarik erraten, negar artean, erien artean salbatuko zituztenak hautatzera bortxatuak nola izan ziren, leku eskasez, langile eskasez, erremedio eskasez. François Salachas frantses adituak, zendu horiek, ilegítimoak deitzen ditu, Europa sortalde opulenteako ospitaleak egokiro hornituak izan balira, ez zutelako sekula hil beharko.

T1 autobusean, bistaz ezagutzen dudak andere batek, haserrearen mugetan, kontatzen digu Mediatekako langile batek zelan larderiatu duen, 75 urte izanez, oraindik ere kanpoan zelako. Macronek, 70 udaberriz goitiko pertsonak etxeetan entzerratzea gonbidatu ditu. «Ateratzeko eskubidea dut, nahi badut, jendea naiz!» errepikatzen du, denek aditzeko moduan. Eskolak ixtean, aholkatu dute haurrak, aitona-amonenekin ez uzteko, kutsakorrek izan daitezkeelako. Biloba potoloak, noiz hartuko ditugu besoetan? Ikastetxez gain, orain, eguneroko bizitza, urritasun zurrin batean isurtzen da, laster konfinatuak izango garela dakigularik. Orduan, jatekoa eta erremedioak erosteko baizik ez dugu jalgitzeko dretxorik ukanen. Eta kirola egiteko. Nortasun agiria eta baimen ofiziala sakelan.

Ibon RGren soinu sintetizatuarekin buztinezko apokalipsiaren hurbilera iragartzearen erruz, hor dugu, Zaldibarreko tragediaren ondotik, pandemia, gure egunen finkotasuna oztopatzen. Noiz arte? Zer egin? Itxiko gaituztenean, herenegun, Pascal irakurri eta *Dead Man* berrikusiko dut. Gurbil eta isil. Eguzkiari agurka. Edo aspertuko naiz, zu bezala...

BIO-BIBLIO

(Baiona-Ipar Euskal Herria, 1959). Genero ugari landu ditu. Poesian, *Bizitza nola badoan* (Maiatz, 1984), eleberrigintzan *Basilika* (Susa, 1985), *Bizi nizan munduan* (Susa, 1996), *%100 basque* (Euskadi Saria 2002), *Susmaezinak* eta *Kripton 85*; narrazioan *Zerue-tako erresuma* eta antzerkian *Odolak su gabe diraki*. Amaia Ezpeldoi fikziozko detektibearen sortzailea ere bada.



Argazia: Jagoba Manterola



Betiko dun dena

Karlos Linazasoro

Betiko dun dena
baina ni ez naun betiko.
Ez zaukanat ezer une hau baizik,
eta une hau ez dun kabitzen nigan,
ni ez naizelako hosto batean kabitzen,
hosto bat ez delako betikotasunean kabitzen,
ez beste neurri apalago batean ere.
Hau dun unea eta hemen naun betiko.
Gainerako atzoak eta biharko pozak
igaro zitunan eta ez ditun ezer,
loreak baizik ez, gomutak, min leunak.
Ez ditun ezer eta ez ditun betiko,
baina bihotza betetzen zidatenan denboraz,
gelditzen zaidan denboraz bihar arte,
nigan kabitzen ez den oro izan nadin,
beste hosto bat eta zeruago,
nire baitan dagoen guztia,
jaiotza eta bekatua eta basoak,
daukadan ezintasun handia,
atzera begiratzeko sukar sendaezina,
itzali nitinan argi ezilkorrak.
Hauxe dun unea, nik bazakinat,
baina minutu honek ez zakin nire berri,
entzuten nain baina ez nain ezagutzen,
eta astia eskaintzen zidan, mundu oso bat,
bart amaituko zaidana ezpainetan,
ezti goxo labur baten gisa,
mundu oso bat uneka hiltzen dena.
Hauxe dun dena, nik bazakinat,
eta bere infinituan hain urria delako
ezin dinat bere erroan neuk soilik iraun,
ni neu soilik ez naizelako denborak
denbora izateko behar duen
ahantzura eta oroimena.

BIO-BIBLIO

(Tolosa, Gipuzkoa, 1962). Ia-ia urtero lan berri bat plazaratzen du. Poesian, hamar liburutik gora ditu, horietan azkena, 2018ko *Lurra bere erro gorri-
ra* (Balea Zuria). Narrazioetan, *El-
darnioak* (Erein, 1991), *Ez balego
beste mundurik* (Alberdania, 2000),
Gizakiaren minak (Erein, 2010) eta
Trilogia hiperlaburra (Elkar, 2016)
argitaratu ditu. Eleberrietan, *Urper-
atze handia* (Elkar, 2009), *Udalbaltza
bahituaren kasu pollita* (Elkar, 2011),
6012 (Erein, 2018) eta beste. Saiakera
ere landu du.



Argazkia: Ander Gillenea